

Lucien Etxezaharreta

Ohore handia da neretzat, Lucien, zure ibilbide eta engaiamenduak aipatzea egun hemen, eta esker onak bihurtzea.

Oroitaraziko dut lehenik 1946an sortu zirela Urkoin, matematikak eta fisika ikasi eta irakatsi dituzula, bai eta formakuntza bat segitu ere Parisko Arte eta Ofizioen Kontserbatorio Nazionalean.

Enbatan eta Amaia elkartean kartsuki militatu duzu 1965etik 1972 arte, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna uztartu nahian.

Zure ekarpena izigarria izan da gero euskara, euskal kultura eta euskal literaturarentzat. Kazetari gisa, Gure Irratian urtetan arizan zira, bereziki denek ezagutzen dugun Gure Bazterrak emankizunaren bidez, gure inguruetako altxorak lanbroetatik ateratzeko. Gure jende arteko hitzak, usaiak, hausnarketak, grabatu eta hedatu dituzu, gu guzien gogo aberasgarri.

Baina gain-gainetik azpimarratu nahi nuke zure lan miresgarria literatura alorrean. 1981ean, *Maiatz* aldizkaria sortu zinuenean, bertze batzuekin, Iparraldeko idazleek loratzeko lekua ukan zezaten. Eta ordutik, badu orai 40 urte, loreztatze lan horretan jarraitzen duzu, *Maiatz* aldizkarian eta *Maiatz* argitaletxean, sutuki, tema altxagarri horrek animatzen zaituela : euskarak eta euskal literaturak etengabe emankor izan behar dute, udaberri iraunkorrean bezala, udazken edo negurik nehoiz ez ezagutu gabe.

Zuhaurk ere idazten duzu : hainbat artikulu argitaratu dituzu *Egunkarian* edo *Berrian*, bertzeak bertze. Kontaketa liburuak eta olerkiak ere sortu dituzu (urte oroz olerkiak agertuz Senpereko Hatsaren Poesia bilduman), eta itzulpen konda ezinak egin dituzu bereziki *Maiatz* aldizkariarentzat.

Literatura irakasle ere izan zira : aita oraino oroitzen da zure kurtsoez, Baionako unibertsitatean, Euskal Ikasketak abiatu zirelarik.

Lucien, izpiritu eta luma finekoa zira : edozoin ideiei idekia, presuna argia, bihotz-zabala eta xumea, egiazko humanista. *Maiatz* lorategi bati konpara nezake, eta zu baratzezain nekazina bezain diskretari : kolore, neurri eta forma guzietako liliak berdin zaintzen dituen baratzezainari, eta ez landareen arantza eta abar bihurriak mozten dituenari –ez baita sekula zentsurarik izan *Maiatzen*, testu guziak, idazle ezagutuenak eta ez hain ezagutuenak berdin hartu baitituzu *Maiatzen*. *Maiatzen*, zuri esker, idazle umilenek ere beren tokia osoki har dezakete, eta *Maiatz* argitaletxeak ehunez gora liburu baditu jadanik argitaratuak, sail guzietan.

Erran daiteke *Maiatzen* eta euskararen zerbitzari paregabea zirela, zure burua ahantziz bezala ari zirela. Liburu azoka eta besta handi gehienetan beti han zaitugu, mahai tikiaren gibelean : Nafarroaren Egunean, Herri Urratsen, Sarako Biltzarrean, Ziburuko liburu azokan, Durangoko liburu eta disko azokan, Paueko liburu azokan, Zarauzko Literaturian... Bertzalde, zu zira *Maiatzaldien* antolatzaile nagusia, *maiatz* guziez, Baionan eta Iruñean. Nun den euskal literatura, han zaitugu, Lucien.

Zu gabe, Lucien, *Maiatz* aldizkaririk eta *Maiatz* libururik ez liteke. Durangoko azokaren antolatzaile den Geredia elkarteak 2007an eskaini zaizun Argizaiola saria, *Maiatzen* egin lan guziarengatik. Euskaltzaleen Biltzarrak, berriz, omendu zaitu bi moldez : 2016an, *Maiatzen bidean 1982-1990* liburua agertuz eta 2017an Baionako Euskal Museoan zu pertsonalki omenduz. Egun, Sarako Biltzarrak eskertu nahi zaitu.

Katixa DOLHARÉ-ÇALDUMBIDE

Sara, 2022ko apirilaren 10a